

Ongintzak 2002ko aurrekontuaren erdia Sandiusterrira bideratuko du

■ Ongintzako aurrekontu osoa 4.621.837 euro da eta hortik, 2.384.101 euro bideratuko dira zaharren egoitzara (772 milioitik 397 milioi pta) ■ 'Emakumeen aukera berdintasuna' bultzatzeko saila sortuko du.

ONGINTZA Patronatuak osatu du 2002ko aurrekontu proposamena. Denera, 4.621.837 euro. Patronatuaren aurrekontutik egoitzak jasotzen du partidarik haundiena, eta aurten ere erdia zerbitzu horretara bideratuko da. Partida nagusia funtzionamendu gastuari dagokio eta beste zati bat inbertsioei. Sandiusterrin aurten egingo den inbertsioetako bat zera da, kanilletako uraren temperatura regulatzeko instalazioa jarzea. Garbitasunak egiteko

oso garrantzitsua baita hori. Sandiusterrin orain arte udalaren konpetentziakoa zen, baina, iaz legea aldatu eta Diputazioaren esku gelditu da. Hala ere, funtzionamendua eta gestio guztia Ongintzak daramaki.

ZERBITZU BERRIA

Ongintzak emakumeen laguntzarako zerbitzua jarri du martxan. Imanol Beroitz Ongintzako buruak adierazi digunez, lehenbizi emakumeen egoerari buruzko az-

terketa egin da. Orain, teknikari bat jarri, eta programa osatuko dute azterketan azaldu ziren beharretan oinarrituta. Zerbitzuak 57.955 euroko partida izango du aurten, ia 10 milioi pta.

BESTE ZERBITZUAK

Ongintzak denara 10 zerbitzu ditu. Zerbitzu sozialei dagokienaz, oinarizko zerbitzu sozialak eta drogomenpekotasun sailaren partidak igo egin dira eta gainerakoak mantendu. Enplegu eta formazio sailak,

berriz, 446.641 euroko partida du.

2.200.000 EURO UDALAK

Ongintzako aurrekontu osotik udalak 2.200.000 euro inguru jarriko ditu (363.120.377 pta) Gainerakoa Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak eta INEM-ek jartzen dute. Azken 5 urteetan Ongintzako aurrekontua %19 igo da, 721.000 euro (124 milioi pta).

Aurrekontu proposamena otsailean eztabaidatuko da plenoan. □

Protektzio Ofizialeko etxeetan izena ematea zabalik

UDALA Babes Ofizialeko 36 etxe egiten ari da Puig-en eta gaur zabaldu da apuntatzeko epea. Hirigintza sailean eman behar da izena: astelehenean ostiralera udaletxeko 4garren pisuan, goizeko 09:00etatik 13:00ak arte.

Eskaerak egiteko epea bukatuko da prentsan azken iragarkia aterata eta handik hilabetera.

BOLEIBOLA

Hernanik aidean menperatu zuen Errioxa

ERRIOXAREN kontra jokatu zuen Hernanik larunbatean. 0-3 irabazi zuten, estuasun haundiegirik gabe. Dagoeneko hamalau partiduk daramazkete galdu gabe. Jokoa: 20-25, 16-25, 14-25. Asteburuan UPV Bizkaiaren kontra jokatu du Hernanik. Irabazi ezker txapelidun geldituko da.

Arazo teknikoak direla-eta atzo ez zen Kronikarik izan

IGANDEKO Kronika irakurri nahi duenak internetean badu aukera: www.hkronika.com helbidean. Barka eragozpenak.



Hungariako Kaldereroak iaz, karrozan txistorra prejitzen.

Kaldereroak larunbatean

DATORREN larunbatean etorriko dira Hernanira Hungariako Kaldereroak. Kalderero festa Elur-Txori elkartean

antolatzen du eta hasi dira prestaketa lanak. Aurten, gainera, nobedade bat dakarkite, Mikel Armendariz le-

hendakariaren esanetan: kantu guztiak euskeraz kantatuko dituzte, bat izan ezik, hungarieraz baita.

Entsaioak astearte, asteazken eta ostegunean izango dira: Elur-Txorin bertan, arratsaldeko 20:00etan. □

AMEGAR, C.B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

SANTA BARBARA
PEUGEOT

PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
Seat Malaga 4 ate	1.5	1.682,83 euro
Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
Peugeot 205 5 ate	Gasolina	1.021,72 euro

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Ibai mendi Kirolak
Nafar kalea 23
Tel: 943 333724
HERNANI

Ibai mendi Kirolak
Nagusia 10
Tel: 943 590372
ANDOAIN

Ibai mendi
Merkealdietan prezio bereziak:
GORE - TEX BOTAK 9.990 pta
XIRA INPERMEABLE TRANSPIRABLEA 14.990 ptatik
COLUMBIA FORROAK 9.990 ptatik
COLUMBIA ALKANDORA 3.500 pta (-%50)
MENDI eta ESKIATZEKO GALTZAK (-%20)
ZAKU eta MOTXILA ESKAINTZA.
Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:
TRANGO, GRIFBONE, EIDER, SALOMON, BESTARO, TUKLAND, LINE 7, ...



Udal Euskaltegiako ikasleak barnetegian.

Udal Euskaltegiak hitzaldi, musika eta bertso ekitaldiak antolatu ditu X. urteurrenean

■ Ekitaldiak: 'Txirrita eta Pello Errotaren arteko bertso desafioa', Joxan Goikoetxearen kantaldia eta Andoni Egañaren hitzaldia ■ Otsailaren 22an da aurrenekoa.

UDAL Euskaltegiak 10 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko zenbait kultur ekitaldi antolatu ditu. Lehenbizikoa bertso desafioa izango da, otsailaren 22an. Unai Agirre eta Jexux Mari Irazuk Txirrita eta Pello Errotaren larrutik kantatuko dute, Joxan Goikoetxeak musikaz lagunduta. Saioa Eizmendi sagardotegian da, afalondoan.

Martxoaren 20an musika

ekitaldia: Joxan Goikoetxeak bere musika produkzioaren laburpena eskainiko du, Biterin.

Maiatzaren 22an, berriz, Andoni Egaña bertsolari eta idazleak sortze-prozesuari buruzko hitzaldia emango du

200 IKASLE

Udal Euskaltegiak 184 ikasle izan zituen lehen ikasturtean eta orain 200 ditu. Gurutze Salaberria euskaltegiako zu-

zendariaren esanetan, azken urteotan ikasle kopurua egonkorra da. Udal Euskaltegiak euskalduntze ikastaro arruntak ez ezik, beharren arabera ikastaro bereziak ere ematen ditu: merkatarientzat, irakasleentzat, gurasoentzat eta abar.

Zuzendariaren ustez, euskera erakusteko metodologian asko aurreratu da. Orain hizketan erakusten da gehiago. □

■ FUTBOLA -Gorengoa-

Hernanik 3-1 irabazi eta sailkapenean gora

HERNANIK 3-1 irabazi zion atzo Gure-Txokori, Zubipen. Zuriberdeak, 0-1 galtzen hasi-

agatik, ondo jokatu eta partiduari buelta eman zioten. Alkorta, Blanch eta Rinconek

sartu zituzten golak. Hernanik 38 puntu ditu orain eta bosgarren jarri da. □

KIROLAK -EMAITZAK-			
FUTBOLA	TALDEAK	PELOTA	PELOTARIAK
Gorengo maila	Hernani 3-Gure Txokori 1	Kronika Tza	
Emakum. liga.	Tolosa 1-Hernani 1	Eskuz	Arano-Gorka 22
1. Erregionala	Hernani 1-Mariaren 0		Intxaspe-Goiburu 10
Gazte. L. Naz.	Herrera 0-Hernani 1	ERRUGBIA TALDEAK	
Gazteak Ohor.	Arrasate 5-Hernani 1	Senior 1 maila	Durango 23-Hernani 12
Kadet. Ohor.	Hernani 5-Herrera 1	Jube. Euskal	B. Bera 0-Hernani 101
Kadet. 2.maila	Orioko 0-Hernani 0	Kad. Euskal	At. SS. 32-Hernani 12
Haurrak Ohor.	Ostadar 0-Hernani 2	Infant. G. Liga	Hernani 30-Zarautz 25
BOLEBOLA	TALDEAK	Aleb. Lagunar.	Hernani 15-Irun 45
1. Autonom.	Errioxa 0-Hernani 3	WATERPO. TALDEAK	
ESKUBA.	TALDEAK	Eusk. Liga	Portugale. 18-Hernani 6
Euskal L.	Elorrio 18-Hernani 24	Eusk. L. 2	Barakaldo 18-Hernani 0

■ KROSSA

Ixiar Urdangarin ondo Lasarten

IXIAR Urdangarin atleta hernaniarra Gipuzkoako bigarren izan zen atzo, Lasarteko krossean: Rosi Talaverak hartu zion aurrea. Euskal Herri mailan, berriz, laugarren sartu zen. Urdangarinak 22 minutu eta 25 segundu behar izan zituen eta sailkapen orokorrean 18garren tokian iritsi zen

Txantxangorri mus txapelketa hastera

ELKARTEETAKO mus txapelketak beren martxan diotaz. Gaur bertan Txantxangorriko txapelketa hasiko da.

Parejaka da eta aurten 36 apuntatu dira. Partidak astelehenetik ostegunera jokatuko dituzte. □

TXANTXANGORRIKO MUS PARTIDAK

ASTELEHENA 28	ASTEAZKENA 30
Montenegro-Gorjon/Olaziregi-Alka	Otaegi-Monroy/Larrañaga-Alberro
Arraras-Pottokoi/Loren-Iñaki	Mauri-Txampil/Goikoetxea anaiak
Ceci-Bitxo/Joseba-Pafa	Karlos-Javi/Goni-Bilbao
Arizkorreta-Osar/Galan-Pablo	Pablo-Koldo/Txepi-Zaldúa
Balantxa-Balantxa/Pantxo-Pako	Monroy-Andoni/Arandia-Bereziartua
ASTEARTEA 29	OSTEGUNA 31
Ormazabal/Pineda-Loinaz	Manu Txiki-Txistari/Pepe-Enrike
Lukas-Esteban/Emilio-Gorka	Javier-Pello/Alber-Pedro
Patxi-Jose Leon/Esnal-Garayar	Norberto-Korta/Joxe-Mikel
Iraola-Etxarri/Sesma-Kaki	
Karrera-Basilio/Txato-Txato Txiki	

■ ESKUBALDIA

Hernani goian Elorrioren irabazita

PARTIDU erraza zuten hernaniarrek larunbatean eta ondo atera zuten aurrera: 18-24. Liderrak, Elgoibarrek, galdu egin du eta Hernanik arrapatu du dagoeneko. Datorren asteburuan elkarren kontra jokatuko dute Hernanin. Lehen postua dago jokuan.

■ ERRUGBIA

Hernanik ezin liderra menperatu

DURANGON oso partidu zaila zuen Hernanik larunbatean. Galduagatik gerra eman zion liderrari, eta ez da gutxi. Atsedendira aurretik joan ziren hernaniarrek, baina, bigarren zatiko huts batzuek Durango aurretik jarri zuten eta hor joan zitzaizkien partidua (23-12).

■ WATERPOLOA

Hernaniarrek galdu Portugaleten

HERNANIKO mutilen bi taldeek galdu egin zuten larunbatean. Lehen taldeari 18-6 irabazi zieten portugaletarrek; eta bigarren taldeari 18-0 barakaldoarrek. Bai bata nola bestea aitzakiarik gabeko emaitzak: bizkaitarrak gehiago izan ziren.

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Hernanin bizi diren alemaniarrek hizketan 12:00: Osiñagako auzo elkartearen kejak 12:30: Historiako bitxikeriak.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
 ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
 ☎ DYA: 943 464622
 ☎ Anbulatorioa: 943 557750
 ☎ Jokalari anonimoak 943 331103

FARMAZIAK

☎ Egunez: Gomez Kale Nagusia 15 ☎ 943 554892
 ☎ Gazez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

ASTEARTEA

☎ Egunez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738

☎ Gazez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738

ASTEAZKENA

☎ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
 ☎ Gazez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793



Hernaniko Udala



IRAGARKIA

Osoko bilkurak 2002ko urtarrilaren 17an hartutako erabaki bidez Hernaniko SU-14.5 Arean, Puig izenekoan, egitekoak diren babes ofizialeko 36 etxebizitza esleitzeko oinarriak onartu dira. Oinarri horiek udaletxeko Herrilan, Hirigintza eta Ingurumen arloko bulegoan daude, jendeak ikus ditzan.

Oinarri horien kontrako erreklamaziorik egin nahi izanez gero 15 egun baliagarriko epea dago, iragarki hau azken aldiz argitaratzen denetik aurrera.

1.- Dokumentazioa eskuratzea:

a) Lekua: Herrilan, Hirigintza eta Ingurumen arloan (4. solairua).
 b) Epea: 30 egun, oinarriaren iragarkiaren laburpena udaletxeko iragarki taulan eta Kronika, Gara, Egunkaria eta Diario Vasco egunkarietan azken aldiz argitaratzen denetik aurrera.

2.- Informazio ematea:

Astelehen eta ostiralean 9etatik 13etara, Herrilan, Hirigintza eta Ingurumen arloko bulegoan (4. solairua).

3.- Eskaerak aurkeztea:

a) Epea: 30 egun, oinarriaren iragarkiaren laburpena udaletxeko iragarki taulan eta Kronika, Gara, Egunkaria eta Diario Vasco egunkarietan azken aldiz argitaratzen denetik aurrera.
 b) Lekua: udaleko erregistro orokorra

Hernani, 2002ko urtarrilaren 24a
 ALKATEA

ETXE ONENAK. S.A.

GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
 ☎ 943 33.22.37

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behea
 Tel. 943 33 24 40
 Faxe 943 556602
 Mobila 610 29 27 01
 20120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA
 FISKALA
 KONTABLEA

Atzeta 51 Behea - 20.120 HERNANI
 Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01